

ZAPLA! PODCASTA

Euskararen erabilera handitzen laguntzeko Euskaraldiaren gida

 **EUSKARA** / Mainer lantzi Goienetxe

Euskaraldiaren bezperetan ahobizi eta belarriprest rolak jokatu dituzten herritarrei baliabideak ematea da Zapla! podcastaren asmoa. Lau ataletan, hizkuntza sumisioaren eta asertibitatearen gisako kontzeptuak ulertzen laguntzen digute adituek, eta une batean euskaraz bizitzea hautatu duten lagunen testigantzak ere jasotzen dira, inspiragarri.

Atean dugu Euskaraldia. Heldu den ostiralean, azaroak 18, hasi eta abenduaren 2ra arte hamabost egun intentso biziko dituzte ahobizi, belarriprest eta arigune funtzioak beteko dituzten norbanako eta entitateek. Hirugarren edizioa da, ekimena ezaguna da, eta garrantzi handia eman diote bultzatzaileek ariketa kalitatez egiteko jendea prestatzeari, modu hagitz kontzientean jokatzeak aukeratu dituzten rolak. Norberak zein hizkuntza ohitura aldatu nahi dituen hausnartzea eta benetan hori egin ahal izateko ahalik eta jantzien egotea da helburua. Eta horretarako, hainbat tresna ari da eskaintzen Euskaraldia, tartean Zapla! podcasta.

«Hizkuntza ohiturak aldatzeko gida moduko bat» dela azaldu dio GAUR8ri Iker Martinez de Lagos Euskaltzaleen Topaguneko kideak. Erakunde honek prestatu du edukia EITB Podcast gunerako, eta ekoizpena On Timek egin du. Aurkezle lanetan, berriz, Monika Belaustegi (Goiena, Txap) eta Juan Kruz Lakasta (Euskalerrria Irratia) kazetariak aritu dira.

Lau atal ditu Zapla!-k eta dagoeneko entzun daitezke aurreneko biak. Gainerakoak,

azaroko hurrengo bi asteartetan sareratuko dituzte.

Ordu erdiko iraupena du Zapla! podcastaren atal bakoitzak. Elkarriketa dago erdian eta osagarriak dira bizitzako momentu batean hizkuntza hautu bat egin duten pertsonen testigantzak eta ohiko bizitzako egoeren irudikapenak.

GEMMA SANGINES

Lehenbiziko kapituluan, Gemma Sangines Valentzian bizi den psikologo bilbotarra da elkarriketatu nagusia. Hizkuntza asertibitatea lantzeko eskaintzen diren TELLP tailerren sortzaileetako bat da.

Tailerron helburua da lehen hitza euskaraz egiten ausartzeko baliabide askatzaileez jabetzea, konplexuak hankaz goiti botaz eta zamak partekatzen ikasiz, aldeko espazioak eta jarrerak irabazteko. Hizkuntza gutxituen hiztunen artean dagoen autoestimua hobetzen laguntzen dute. Hiztun hauek askotan urpekariak bezalakoak dira: ur azalaren azpian gelditzen dira eta soilik eremu zurreretan ateratzen dira azalera.

Sangines estres linguistikoz, hizkuntza sumisioaz eta asertibitateaz aritu da solasean podcastean. Azkenaldian termino hauek euskalgintzan gero eta gehiago ateratzen ari

Argazki handian, norbanakoen izen ematea zabaltzeko ekitaldia Bilbon, joan den irailean. Txikietan, Euskaraldirako girotzeko festa Gernika-Lumon, urrian. Monika DEL VALLE - Aritz LOIOLA | FOKU





diren arren, psikolinguistikan ez daramate hamarkada bat baino gehiago. 2010ean bilbotarrak “Sortir De L’Armari Lingüístic: Una guia de conducta per a viure en català” argitaratu zuen Ferran Suayrekin batera, eta hura egokituz, “Irten hizkuntzaren armairutik - Euskaraz bizitzeko portaera gida” plazaratu zuen Emun kooperatibak 2015ean.

Presa dugunean erdaraz egin eta euskaraz erantzuten digutenean gure buruarekin gaizki sentitzen gara. Hori es- tres linguistikoa da.

Adituak zenbait aholku ematen ditu elkarrizketan es- tres hori murrizteko. Irudika- tu semaforo bat eta hura ber- de dagoenean, hau da, egoera hizkuntza hautua erraz egite- ko modukoa iruditzen zaigu- nean, beti euskaraz egin. Au- rreiritziak identifikatzea ere komeni da. Gure buruari erra- ten diogu, adibidez, Gasteizera

goazenean ez dela erraza eus- karaz komunikatzea. Aurreiri- tziak alde batera utzi, eta saia- tu euskaraz egiten bertzeak ez duela ulertzen erran arte.

Asertibitatea lotsaren eta agresibitatearen erdian koka- tzen du Sanginesek. Eta euskal hiztunak hagitz lotsati ikusten gaitu. Bere gomendioa da ore- ka bilatzea alde batetik bertze- ra joan gabe, horrek ekarriko digu lasaitasuna guri eta so- laskideari ere bai.

JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS

Zapla!-ren lehen atalean, Juan Ignacio Perez Iglesias Kultura Zientifikoko Katedraren zu- zendariak eta Jakiundeko pre- sidenteak hizkuntza hautua- ren inguruko bere testigantza eman du. Kontatu duenez, ka- rrerako hirugarren urtean eus- kaldundu zen, eta tesia euska- raz egitea eta defendatzea erabaki zuen. Hautu inportan- tea izan zen emaztea eta bien-

tzat haien lehen hizkuntza izan ez arren, umeak izan zi- tuztenean euskara etxeko hiz- kuntza bihurtzea ere. Orain, seme-alabak etxetik joan dire- nean, etxean gaztelania eta euskara nahasiz komunika- tzen direla aitortu du.

Martinez de Lagosek espli- katu duenez, podcastaren bi- dez hizkuntza ohiturak alda- tzeko baliabideak eskaini nahi dituzte, euskararen erabilera handitu nahi duten herrita- rrentzako tresnak, eta horiek

Asertibitatea lotsaren eta agresibitatearen erdian kokatzen du Sanginesek, eta euskal hiztunak hagitz lotsati ikusten ditu. Dioenez, oreka bilatzeak ekarriko digu lasaitasuna

Aurreko Euskaraldian euskaldunak ahalduntzeko talde bat antolatu zuen Artolak. Hori izan da oinarria Errenterian eta Getxon martxan diren eskoletarako

lantzeko hainbat egoera ze- hatz ere irudikatu dituzte ak- toreen laguntzarekin, gero ho- rien gainean adituen aholkuak jaso ahal izateko.

EUSKARALDITIK HARAGO

Zapla! Euskaraldiaren hiruga- rren edizioaren testuinguruan sortu bada ere, gerora ere era- bilgarria izan den tresna de- la uste dute podcastaren sor- tzaileek. Topaguneko kideak agertu duenez, Euskaraldiak hizkuntza ohiturak modu ba- bestuagoan aldatzeko aukera ematen du, eta ariketa honeta- tik harago ere bada premia ha- lako prozesu batean laguntza handiagoarekin barneratzeko, prestatuago. Hori ez da mo- mentuan egiten den zerbait.

TELP tailerretan egiten dute hori normalean, eta ideia da gero eta baliabide gehiago es- kaintzea, beste bide batzuk.

Podcastaren bigarren kapi- tuluan, ahalduntze eskolez hitz egiten dute. Tolosaldeko esperientzia pilotuaren berri ematen du Imanol Artola *Felix* Galtzaundi euskara elkarteko kideak. Hiznet graduondokoa- ren bukaerako lana gai honen inguruan egin zuen Artolak, Sangines bera gidari eta Kike Amonarriz laguntzaile, eta au- rreko Euskaraldian euskaldun- ak ahalduntzeko talde bat an- tolatu zuen. Sei lagunekin prozesu bat egin zuen sei aste- tan, eta bizipen horiek izan di- ra oinarria asteotan Errente- rian eta Getxon martxan diren ahalduntze eskoletarako. Arto- la bertsozalea da eta Ahaldun- tze Bertso Eskolak hartu zi- tuen eredu.

Zapla!-ren hirugarren atale- an, lehen aipatutako TELP tai- lerrean gainean ariko dira eta laugarrenean, entitateei eta hizkuntzarentzako gune ba- bestuei buruz.